



**BARREN**  
**TOKIKOM**

# Baserritarrak babes eskean



**EUSKALDUNA  
HERRITARRA**

**HEZKUNTZA EREDU PROPIOA  
ERALDATZAILEA**

Herritik sortuak eta herriarrentzat

Kooperatiba

Auzolana eta elkarlana

Euskal Curriculuma

Kompetentzietan oinarritutakoa

Aitzindariza Pedagogikoa

Prestakuntza eta  
aholkularitza

I+G+B

Ikasmaterialgintza  
propioa

Bikaintasuna ikasleen  
hobekuntzan

Euskal Kultura

Euskal Herritik mundura

Euskararen ardazturiko  
eleaniztasuna

**Aurkezpen bilera**  
**urtarrilaren 28an**

**18:00etan**

[elgoibar@elgoibarikastola.eus](mailto:elgoibar@elgoibarikastola.eus) 943 74 44 41



elgoibar ikastola  
[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)

EUSKALDIA

# ikastola

**elkarrekin** Aurre-matrikulazioa:  
**hezkurantz** urtarrilaren 28tik  
**eraldatzen** otsailaren 8ra







# HARRI & IRRI

Go!azen!



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Sorraluze, Ane Astiazaran, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR  
UOLA  
KUTUNTAMENTO

LAGUNTZAILEAK:



MENDARO  
2011



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

#### ► HIZKUNTZAK

Aurtengo Gabonetan badirudi hizkuntzak garrantzi handia izan duela gurean. Erregeak, eskutitzak... Eskutitzen harira, ez zen lan erraza izan gutunak lortzea, gaztelaniaz zirelako ez zituztelako saltzen. Hala nola, lortu nituen pare bat gutun, eta egia esan, ez dakit euskaraz, gaztelera edo txineraz zeuden, ez bainion horri garrantzirik eman. Helburua beste bat zen: ilobek zituzten ilusioak bertan idaztea, besterik gabe.

Eta erregeei dagokienean, ados nago txikiek euskaraz egiteko eskubidea dutela esatean, baina guzti hori aurrerago eztabaidatu beharko litzatekeela iruditzen zait, hau da, normalta-

sun egoera batetara heltzearekin. Hortaz, momentu hau ez zait ona iruditzen.

**Iosu Zubiarre Jauregi**

#### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelera datarren eskutitz argitaratuko.



### Isolina Lucas Santos

2019ko urtarrilaren 16an hil zen, 81 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Etxekoek ez zaitugu inoiz ahaztuko.***



### Francisco Sota Allende

2019ko urtarrilaren 17an hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Mendian gora haritza  
ahuntzak haitzean dabilta  
itsasoaren arimak dakar  
ur gainean bitsa.***





## *Julio Mauleon Martinez*

2019ko urtarrilaren 22an hil zen, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



***Senar, aita eta aitona  
zoragarria izan zara.  
Gure ondotik joan arren,  
beti bihotzean eramango  
zaituen familia utzi duzu.***



I. URTEURRENA

### *Mari Tere Unzueta Etxaniz*

2018ko urtarrilaren 29an hil zen, 91 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,  
zapatuan, urtarrilaren 26an, 19:00etan,  
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Zure irribarre goxoa eta maitasuna  
betirako izango dira gure artean.***

III. URTEURRENA

### *Garbiñe del Hoyo Murua*

2016ko urtarrilaren 28an hil zen, 48 urte zituela.  
Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, zapatuan,  
urtarrilaren 26an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren  
Eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,  
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.  
Zure indarrak emango digu benetako bizia,  
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.***

Zure familia





## Urazandi eta Aizkorri arteko bidea berritzeko lanak hasi ditu Udalak

Elgoibarko Udalak joan zen astean hasi zituen Urazandi eta Aizkorri artean dagoen oinezkoen bidea konpontzeko lanak. Lan horien bitartez, bide hori berrurbanizatu, egokitu eta bere onera ekarriko dute. 44.600 euro inguruko aurrekontua dauka obrak, eta ondo bidean, lau hilabeteko epean amaitzea aurreikusten dute arduradunek.

Lan horiek aprobetxatuz, Gipuzkoako Urak enpresak ur sarerako hodi berriak sartuko ditu, Santa Klara eta Urazandi auzoetan kalitatezko ur hornidura zerbitzua bermatzeko.

Egokitzapen lan hauek 2018ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren baitan egingo dira. Udalak zortzi proiektu aurkeztu zituen herritarrek lehen-tasunak zehazteko. 16 urtetik gorako 374 herritarrek hartu zuten parte, eta hau izan zen boto gehien lortu zuen bigarrena, 1.926 botorekin.

## Minigarbiguneak ipini dituzte garbiguneetan utzi behar diren materialak gaika biltzeko



Garbiguneetan egiten den gaikako bilketa herritarrei gerturatzeko hamabi minigarbigune jarri ditu Debabarreneko Mankomunitateak bailarako zortzi herritan. Horietako bi Elgoibarren jarri dituzte (Trenbide kaleko 10. zenbakian eta Deba kaleko aparkalekuan, Guass dantzalekua egon zen lekuan), eta bat, Mendaron, Mendarozabal auzoan.

Minigarbigune bakoitzak zortzi tiradera txiki dauzka honako elementu hauek uzteko: sakeleko telefonoak, CDak eta DVDak, bonbillak, aerosolak, bateria txikiak, pilak, telefono-kargagailuak eta erradiografiak. Gainera, tamaina handiagoko 6 kubo dauzka, 80 litrotik 120 litrorako bitartekoak, honako elementu hauek lagatzeko: kable elektrikoak eta txatarra bolumen txikia, etxetresna elektriko txikiak (plantzak, txigorgailuak...) ordenagailu eramangarriak, bideo-kontsolak eta bideo-jokoak, 10 litro baino gutxiagoko edukiera duten pintura-potoak eta inprimagailuetako kartutxoak. Guztiak material birziklagarriak dira, bide publikoan kokatutako edukiontzietan utzi ezin direnak eta, gaur egun, garbigune bateraino eraman beharrekoak.

## Matrikulazio epea zabalik, Udal Euskaltegian

Debabe Udal Euskaltegiak jakinarazi du otsailaren 8ra arte dagoela martxan dauden taldeetan sartzeko izena emateko aukera. Interesatuak Udal Euskaltegira bertara jo dezakete (Kalebarren plaza 2), edo bestela, ondorengo telefonora deitu dezakete: 943 742 731

## Kinielan hamabostekoa asmatu dute Mendaron

Joan den asteburuko kinielan futbol ligako jardunaldian jokatu diren partida guztietako emaitzak asmatu ditu mendarotar batek. Morroskilo dendan zigilatu zuen dokumentua mendarotar horrek. Ez da izan, baina, hamabostekoa asmatu duen bakarria beste 254 lagunek ere halaxe egin baitute. Saria denen artean banatu behar dutenez, beste batzuetan baino sari txikiagoa jasoko dute asmatzaileek; 8.621 euroko saria, hain zuzen ere.

## Piriniotako burdinaren bideari buruzko erakusketa astelehenetik aurrera ikusgai

Erreminta Makinaren Museoa Piriniotako burdina eta siderurgiari buruzko erakusketa ibiltaria antolatu du, eta astelehenetik aurrera egongo da ikusgai, Erreminta Makinaren Museoa bertan. 8:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 17:30era bisitatu ahal izango da erakusketa. Horrez gain, bi bisita gidatu antolatu dituzte urtarilaren 31rako, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Euskarazkoa goizez izango da, 10:30ean eta bestea, arratsaldean, 16:00etan. Ordubetekoak izango dira bi saioak, doan, eta gehienez 20 laguntzako lekua egongo da. Arduradunek aurrez izena emateko eskatu dute 943 748 456 telefonora deituta edo [museoa@museoa.eus](mailto:museoa@museoa.eus) helbide elektronikora idatzita.

Bestalde, otsailaren 27rako ekitaldi berezia antolatu dute Makina Erremintaren Museoko arduradunek. 20 urte bete ditu museoa, eta ospakizun ekitaldia egingo dute IMHn.



## Udarako lekualdatuko dute Eguneko Zentroa Uparitzaga kalera



**E**lgoibarko Udalak Eguneko Zentro berria egingo du Uparitzaga kaleko 16. zenbakian, Babes Ofizialeko etxe berrien azpiko lokalean, hain zuzen ere. 2019ko udal aurrekontuetan aurreikusita dago gastu hori, eta guztira, 200.000 euro erabiliko dituzte. Gaur egun hogeitaz lagunek erabiltzen dute Eguneko Zentroak eskaintzen duen zerbitzua, eta Udaleko arduradunek esandakoaren arabera, ez dago itxaron zerrendarik. Dena dela, lokal berria egokitzen dutenean 30 lagunentzako lekua egongo da. Eguneko Zentro berria kaleko zoruaren maila berean egongo da, eta alde horretatik gaur egungoak baino irisgarritasun hobea izango du. Gainera, handiagoa izango da, 350 metro koadro izango ditu, eta komun gehiago edukiko ditu. Ondo bidean, udarako bukatuko dituzte obrak.

## 'Amorantek' Zumaiako San Telmo ermitan emandako kontzertua, urteko onenatarikoa

Iban Urizar *Amorante* musikari elgoibartarrak Zumaiako San Telmo ermita ezaugunean eman zuen kontzertu bat 2018ko hamabi kontzertu onenen artean sartu du Musikatzen atariak. Musikatzen webguneak diskoei buruzko iritziak, kontzertuen kronikak eta musikarekin zerikusia duten gertakariak eta bestelakoak argitaratzen ditu. 2018ko kontzertu onenen zerrenda osatzeko nazioarteko taldeen edo abeslarien kontzertuak (Lorde, Pearl Jam edo Eels), eta baita Euskal Herriko taldeenak ere (Belako, Berri Txarrak edo Grises) jaso dituzte.



## Euskal Herriko mus txapelketa bihar, Lanbroa tabernan

Euskal Herriko mus txapelketa abian da, eta, bihar jokatuko dute Elgoibarko kanporaketa Lanbroa tabernan. Parte hartu nahi dutenek hara azaldu beharko dute. 16:00etan hasiko da partida. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu izena ematerakoan. Parte hartzaile guztiek ardo botila bat jasoko dute sarritzat. Bikote irabazleak lau lagunentzako bazkaria irabaziko du (Lanbroan), eta bigarren sailkatuak bi lagunentzako afaria.

## UEUren ikastaroetarako diru-laguntzak

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) prestatu dituen ikastaroetan parte hartzeko diru-laguntzak emango ditu Elgoibarko Udalak. 23 ikastaro izango dira guztira. Eskola presentzialak Eibarren eta Iruñean eskainiko dituzte, eta beste ikastaro batzuk on-line egitekoak izango dira. Ikastaroei buruzko informazioa [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus) webgunean aurkituko duzue. Era berean, diru-laguntzei buruzko informazioa Elgoibarko Udaleko Euskara Sailean eskuratu daiteke (943 744 366).

## Dolmenen ibilbideari buruzko hitzaldia, gaur

Dolmenen Ibilbideari buruzko hitzaldia izango da gaur, Debegeesak eta Udalak antolatuta. Aranzadi Elkarteko Jesus Tapia eta EHUKo Fernando Bazeta izango dira hizlariak. Batetik, dolmenen ibilbidea zer den azalduko dute, eta bestetik, pasa den udazkenean egindako lanen berri emango dute. Amaieran, mahai-ingurua egongo da. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da ekitaldia, 18:00etatik aurrera.



# ELGOIBAR BHI INSTITUTUA

# 2019-2020 Zatoz!

2019/20 ikasturterako DBHko aurrematrikula  
urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

Gurasoentzako bilera Arreiturreko liburutegian:

Elgoibarko gurasoentzat: urtarrilaren 30ean, arratsaldeko 18:00etan

Mendaroko gurasoentzat: urtarrilaren 31n, arratsaldeko 18:00etan



Elgoibar BHI

[www.elgoibarbhi.eus](http://www.elgoibarbhi.eus)

Elgoibar BHI

Arreiturre 2

Tel.: 943 740 397

E-posta: 01343/iaa@hezkuntza.net



elgoibarko  
herrir eskola

Kalerra, 8

Tel.: 943 740 870

E-posta: 01277/iaa@hezkuntza.net







*Iñaki Ansola 'Mausitxa', baserri ondoko larrean, artaldea atzean duela.*

# Elkarbizitza gatazkatsua

**Otsoaren uluak beste aztoratzen ditu gure baserritarrak basurdearen kurrinkak. Eta otsoak baino otsoago zaizkie sarri artaldeetara solte inguruzten zaizkien txakurrak, bai eta abere hilen edo ahulen usainean hegaldatzen diren putreak ere. Auzo hurbilak dira denak, eta elkarren ondoan bizitzera kondentatuta daude. Nork bere funtzioa betetzen du gainera. Beti izan da hala, eta gorabeherak gorabehera, beti konpondu dira, baina azkenaldian dezente zaildu da elkarbizitza. Babesa eta euren lanari balioa emateko eskatu diete baserritarrek administrazioari, eta errespetu handiagoa, aisialdian mendira inguruzten diren guztiei.**

- AINARA ARGOITIA -

**G**uk egiten dugunak ez dauka baliorik. Alferrik dira hemen negarrak. Galdutakoa galdu, eta kitto!". Elgoibarko Goenaga baserriko Enrike Barrenetxearen berbak dira, baina bere egiten dituzte elkarriketatutako gainerako baserritarrek. Tailerlean erretiroa hartu zuen, baina etxean egindako ardigazta saltzera jaisten da merkatu plazara, eta bera da gure gaurko lehen protagonista. Urriaren azkenera, Atxolin baino Elgoibar alderago larrean zuen artaldetik zortzi bat ardi galdu zitzaizkion, txakur batek aurrean hartuta [Haietako bi ardi hilda topatu zituen gero]. Ez zen kanpora lar zabaldu, baina antzekotasunik bazuen beste kasu batek makina bat albistegi zabaldu zituen sasoi beretsuan. Debagoienean gertatu zen, Eskoriatzako lurretan. Solte zebiltzan bi txakurrek 70 bat ardi hil zituzten eskualdean, eta ibar horretako artzainek prentsaurrekoa eman zuten, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako artzainek lagunduta. Prentsaurrekoa eman zuten artean zegoen aste batzuk lehenago Gorbean elurteak harrapatuta hil ziren ardiak jabea ere, Belen Etxebarria. Hark azaldu zuen txakur batzuegandik ihesi zebilela gelditu zela artaldea elurretan preso

eta hilda atera zituztela batzuk. Haserrea eta inpotentzia agertu zuten artzainek eta salatu zuten arazoa zabala eta orokorra dela, beste bailara eta lurraldeetan ere sufrizten zutela. Eta luze gabe jakin genuen Eskoriatzan kalteak eragindako txakurren jabeak [baserritarra bera] txakurrak hiltzeko baimena eman zuela.

Hautsak harrotu zituen albiste hark hurrengo egunetan sare sozialetan eta abarretan. Eta berba asko egin zen. Berba egin zuten artzainek, berba egin zuten basozainek, eta entzun edo irakurri genituen baita ere txakur jabeen ahotsak –txakur jabe beste ahots, bide batez esanda–, baina komunikabideek gertakari hark albiste izateari laga behar ziola erabaki zutenean, amaitu zen itxuraz arazoa bera ere. "Itxuraz bakarrik. Hurrengo beste handi bat gertatu arte edo hurrengo berritro telebistan agertu arte", dio Barrenetxeak. Txakur jabe bat baino gehiagorekin izan ditu gorabeherak eta ez ditu denak zaku bereko egin nahi, baina errespetua eskatu die.

"Mendian, abereak solte dabilzan lekuan, txakurra lotuta eraman beharko litzaiteke beti, eta kalean ere ez lukete ametitu behar solte erabiltzerik. [Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendi Foru Arauaren seiga-

*Urrian, Atxolin baino  
Elgoibar alderago zortzi bat  
ardi galdu zitzaizkien  
Goenaga baserrikoei,  
txakur batek aurrean hartuta*



Enrike Barrenetxea Goenaga basterrikoa, artaldearekin.



rreren artikuluan espreski jasota dago txakurrak lotuta eramane behar direla abereak larrean dauden mendietan. Txakurren kontrolaren ardura, baina, tokian tokiko udalena dela zehaztu dute Aldunditik]. "Txakurrei erreparoa behar zaie, nire antzera beti txakur artean ibilitakoa izanda ere, inork ez dakielako zer egitera heldu daitezkeen. 'Gureak ez du haginka egiten', entzuten diet batzuei. Ez, ez du egiten, behin egiten duen arte, baina umeren bati kolpe egiten dionean alferrik da gero negar egitea. Aseguruak badaude, baina aseguruak ez du ume berriak egiten!". Etxeko txakurren bat edo beste ere ikusi ditu ardiei segika, eta okerrak ere egin zizkion behin batek. "Askok ez dute txakurren berri. Txakurra eta otsoa, biak datoz urrutiko arbaso beretik". Batetik, ikusten du hori, txakurra zer egitera iritsi daitekeen esaterik ez dagoela abere artean, eta bestetik, ikusten du kaletar askok "ezer gutxi" dakitela ardiak.

"Ba al dakite ardia segituan izutzen dela eta pendizean behera bere burua botatzeko kapaz dela, txakurra ondorik ikusiz gero?. Hor dago arazoa". Errespetua eskatu die txakur-jabeei. "Zer den ere ez dakite gaur batzuek". Azkue auzoan du baserria eta mendizale eta ibiltari asko pasatzen dira egunero bere etxe ondorik, Berazetara bidean; "gero eta gehiago, txakurrekin". Behin, Azkue auzoko zentral parean larrean zebiltzan ardiak zaintzen zegoela, han ikusi zuen polizia txakur bat urreratzen, eta, atzetik, jabea. Eta kargu hartu zion. Txakurra lotzeko eskatu zion, eta hori esateaz bat artaldera sartu ei zen txakurra eta ardi denak dantzan jarri. "Pentsatu ere egin gabe jaurti nion eskuan neukan makila eta danba muturrean jo. Blaust jausi zen txakurra eta mozkorren antzera balantzaka jaiki zen gero, ahotik odola zeriola. 'Esto te va a salir caro' bota zidan jabeak, baina isildu zen segituan, ez zeukan arrazoirik-eta. Neuk aurrez abisua eman, kaltea berak egin eta bera hartzekoekin?. Lotsagabetuta dabil jendea". Zentzuz jokatzeko eskatzen die txakur-jabeei, nahiz uste duen batzuekin alferrik dela, zentzuna galduta ikusten dituelako. Karakate gainean gertatutakoa ekarri du gogora. Ardiak larrean lagata behera zetorrela, gizonetako bat ikusi zuen, polizia txakur bat ondorik zuela; Eta eskatu zion txakurra lotzeko, ardiak larrean solte laga zituela ohartarazita. "Eta badakizu zer erantzun zidan? Aurreko astean igo zela bera eta ezin izan zuela umeekin joan, bidea ardi kakaz beteta zegoelako. Zer esango diozu halakoari? Ezer ez, alferrik da".

Barre egin du Iñaki Ansola *Mausitxak*, baina ez barre egiteko kontua iruditzen zaiolako. "Mendia denona da, bai, nirea beste zurea, baina zaindu beharko dugu ba mendia zaindu eta handik errendimendu ekonomiko bat ateratzen duena ere, ala?", bota du. Ez da debekuen aldeko, eta horrenbestez ez dio inori men-

dian txakurra beti lotuta erabiltzea eskatuko, baina abereak dabilzan lekuan txakurra katera lotzeko eskatzea ez du gehiegizkoa ikusten. "Domeka goizean Izarraitzera doan horri pena emango dio zatiren batean txakurra lotuta eramateak, neuri ere emango lidakelako, baina niri beste gauza batzuk ere ematen didate pena. Enpatia izatea eskatzen dut, badakidalako debekuak ez lukeela ekarriko gure arteko haserrea besterik".

Arazoa, baina, sakonagoa dela uste du Ansolak: "Ardiak ez dauka baliorik. Txakurrak, otsoak, putreak eta gainerakoek, bai; horiek estimatzen dira, baina ardiak ez". Gopegin (Araba) gertatutakoa jarri du horren adibidetzat. Gopegiko bizilagun batek auzorik hurbilena duen artzaina salatu du txakurra tiroz hiltzeagatik. Artzaina bera da txakurrari tiro egin diona, etxeko ardiak itotzen ikusi ostean. Salaketa hori tarteko, urtebeteko inhabilitazioa eta 6.000 euro arteko isuna eskatzen dute orain artzainarentzat. "Zer da orduan? Txakur bakar batek dozenaka ardik baino balio handiagoa al du?". Horrek dauka etsita. Izan ditu berak ere gorabeherak txakur-jabeekin, bereziki ehiztariekin, eta gogoan dauka zelan behin perdigoitiroz josi zioten ardiak solte zebiltzala ohartaraziz mendian jarri zuen kartela. 'Mesedez zaindu txakurrak, ardiak solte dabilta' zioen kartel hark, eta jarri eta gutxira, erabat zulatuta topatu zuten. Hala ere, txakurrenak baino kezkatuago dauka aspaldian beste gai batek Ansola: otsoa espezie mehatxatuen EAEko katalogoan sartzea aztertzekeko prozedura abiatzea onartu izana Jaurlaritzak. [Gaur egun Europako Batasuneko zuzentarau batek ezarrita dauka otsoa babesteko agindua, baina babes hori bermatzeko neurriak hartzea lekuan lekuko administrazioei dagokie. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko kasuan, Eusko Jaurlaritzari]. Txakurrarena baino urutiagoko arazoa iruditu arren askori, oso gertu sentitzen du berak eta larritasunean ezin konparatu daitekeela dio, gainera.

## EUSKADIKO OTSOA TALDEAREN ESKARIA

Urriaren azkenera eman zuen berria Jaurlaritzarako Ingurumen Sailak. Otsoa espezie mehatxatuen katalogoan sartzeko eskatu zion Euskadiko Otsoa Taldeak 2015. urtetik. Funtsean hiru arrazoi eman zituzten horretarako: otsoa bertako espeziea dela, gi-



“Gertatzen dena da kargua  
duten guztiak direla era  
batekoak, baserri mundua  
ezagutzen ez dutenak.  
Hor daukagu guk arazoa”

- IÑAKI ANSOLA -

zakien presio handia jasaten duela eta euren ustez galtzeko zorian dagoela. EAEko katalogo horretan lau multzotan sailkatzen dira espezie mehatxatuak: in-teres berezikoak, bakanak, kalteberak eta galtzeko arriskuan daudenak, eta Euskadiko Otxoa Taldeak azkeneko horretan sartzeko eskatua zuen, arrisku mailarik altueneko sailean alegia. Hala ere, Jaurilaritzak erantzuten ez ziola ikusita, Euskadiko Otxoa Taldeak kexa jarri zuen Arartekoan, eta 2017ko azaroan, auziari buruz ahalik eta azkarren ebazteko eskatu zion Arartekoak Jaurilaritzari. Eta ia urtebete geroago, jakinarazi zuen Ingurumen Sailak otsoa espezie mehatxatuen katalogoan sartzeko prozedura hasia zuela. Orain, beraz, erabaki beharko dute katalogo horretan sartu ala ez, eta sartzekotan, zein kategoriatan sartu.

“Espero dezagun dagoenetan lagatzea kontua, bestela gu-reak egin du. Otxoa galtzeko arriskuan dagoen espezie izenda-tzen badute, administrazioak sartu egingo ditu, eta gero, gainera, ezingo da sekula ehizatu. Eta horrek gure lurralde honetan, ar-tzaintzaren azkena ekarriko luke, behintzat gure artzaintza ere-duaren azkena, gure mendiak oso txikiak direlako”. Beste lurralde batzuetan gertatutako erasoen zerrenda egin du. Erasoak saihe-stek Mastin txakurrak erabiltzen dituzte artzain askok edo zelatan ematen dituzte gauak bestela, baina horrek ere badu bere zera, batetik, otsoaz babesten ibili beharrak are gogorragoa egiten duelako lanbidea bera, eta bestetik, txakurrekin arazoak ere sor daitezkeelako. “Mendia josten duzu mastinez eta altan dagoela heltzen dio mendizalaren bati, eta zer? Akabo orduan!”.

Otxoen erasoak sufritzen dituzten artzain eta abeltzainei diruz laguntzearen alde agertu da Euska-diko Otxoa Taldea, beti ere preben-tzio neurriak hartzen dituzten abeltzainen kasuan, hau da abereak gaez mendian eta “inolako babesik gabe” lagatzen ez dituztenen ka-suan, baina diru-laguntzen sistema ez du begi onez ikusten Mautxak. “Hori tranpa da. Guk ez dugu hori nahi. Laguntasunak ematen hasten diren momentuan galduta daukagu guk borroka. Lehen ere, zer? Diru-la-guntzak ematen hasi ziren eta lehe-nengoetan sekulako poza, baina orain? Hasieran 10 euroan saltzen zena, gero 7an saldu behar, eta orain, hogeita hamar urtean, prezio berean gabilta”.

Kezkatuta dago, eta bistakoa du. “Hemen ez dago erdibiderik. Guk ez dugu nahi ardiak kortan eta

kanpotik ekarritako soja transgenikoa emanda hazterik. Abeltzaintza klase hori ez dute nahiko ba animalien alde ari diren hauek, ezta? Orduan zertarako nahi dute otsoa?”. Mezuren bat edo beste ere jaso du otsoaren kontra agertzeagatik. ‘*Si no quereis*

*al lobo no queremos vuestro queso*’ jaso zuten azkena. “Eta eran-tzun nien: *Si se mete el lobo, no tendreis queso*. Eta esango nien gehiago ere. Hemengo gazta erosten duenak, gurea zein beste batena, kalitatezko produktua erosteaz gain, ingurumena eta aisia ere erosten dituelako”. Otxoak artaldeetan egiten duen kaltea zenbaezina dela dio Mautxak, kaltea ez delako zenbat ardi ito dituen zenbatzera mugatzen. “Batu horri estresagatik abortuak eta beste kalte denak”. Garbi dauka basa animalia denek bete-zen dutela beren funtzioa ekosisteman, baina iruditzen zaio haien populazioaren kontrola zorrotz eraman behar dela, eta galtzeko zorian dauden espezieen zerrendan sartuz gero, ez dagoela ha-lakorik. Gogoeta luzea egin du gero: “Gertatzen dena da admi-nistrazioan kargua duten guztiak direla era batekoak, baserri-mundua ondo ezagutzen ez dutenak. Hor daukagu guk arazoa, eta egia da erru guztia administrazioari bota orde-z autokritika ere egin beharko genukeela, Elgoibarren bertan ere inork ez duelako nahi izaten Nekazaritza Saileko zinegotzi izan. Bote-reguneetan muturra sartzea ere badago gure esku”. Somiedon (Asturias, Espainia) gertatutako adibide bat ekarri du hausnarketa hori janzteko. Azkeneko elurtean erabat inkomunikatuta gelditu ziren inguru hartako baserriarrak, arbolek bideak itxi zizkietelako. Bizi osoan ebegi izan dituzte errepide ondoko arbolak, baina orain, debekatuta dute. “Hango batek idatzitako artikulua irakurri

Nerea Garitagoitia, Basueta barriko alaba, etxe ondako ortuan.





*Basueta baserriko larrea basurdeek harrotuta.*

nuen eta izugarri ona iruditu zitzaidan. Hala zioen, gutxi gorabehera: 'Azkenean Oviedon bizi denak agintzen du hemen, arbolak eta animaliak liburuetatik ezagutzen dituenak, eta hemen bizi garenok ezin dugu bizi eurek nahi duten bezala'".

Otsoekin ez, baina putreekin edo sai arreekin izan dituzte gorabeherak gure bueltako baserri-tarrek. "Izugarri ugaritu dira", dio Mausitxak. Sai arrea espezie babestua da gurean eta "ezin da kontrolatu", Iñigo Mendiola Basanialien eta Landareen Gipuzkoako zerbitzaburuak zehaztu duenez: "Asko ugaritu da, bai, baina kontuan izan behar da, baita ere, Gipuzkoa lurralde txikia izanda, zaila dela jakitea ikusten ditugun guztiak gure lurraldean jaiotak diren, ibili luzeak egiten dituztelako". Espezie nekrofagoa da putrea. Jateko premia larria duenean baino ez die eraso egiten hiltzearedo ahul dauden animaliei, baina putrearen populazioa gora doan heinean eta mendietan jana topatzeko zailtasunak handitzen doazen heinean, ganaduari ere sarriago erasotzen diete, baita bizirik dauden abereei ere. Udaberrian gertatu zitzaizen Mausitxan. Txahala egin berri zen behiari eraso zion putre talde batek. Erditzean egindako indarragatik atzeko hanketako nerbioak atrofiatuta gelditu zitzaizkion behiari eta egoera hori probestu zuten putreek eraso egiteko. "Goiza zen behiak txahala egin zuenean, eta eguraldi ona egiten zuen. Pentsatu genuen bertan lagatzea behia bere onera etortzen eta gero etxera jaitea. Pare bat orduko kontua izaten da. Aitak putreak ikusi zituenean berehala joan ginen hara, baina atzeko alde dena janda zioten ordurako. Peritua etorri zenerako odolustuta hil zen behia". Ez dute kasu bakarra izan. Burua txarrantxan kateatuta gelditu zen ardi bati ere jan zioten atzea beste behin, eta Sallobenteko Basueta baserrikoek ere ozta-ozta atera zuten bizirik putreen erasoak jasan zuen behi bat duela hiruzpalau urte. "Sekulako ebakuntza egin behar izan genion, umetokia, matriza eta denak kanpoan zituvelako".

Sallobente auzoan dago Basueta, Karakate magalean, eta hantxe, kortako lanetan ari da Nerea Garitagoitia, ganaduari jaten ematen eta azpiak egiten. Dozenaka ganadu-buru dituzte, eta Sallobente auzoko larre-sail gehientsuenak erabiltzen dituzte. Baserriatik bizi dira. Ikulu ondoan dute ortua ere, bidez gainerako aldera, eta huraxe erakustera eramane du kazetaria, basurdeek egindako lorratzak ikustera. "Horra sartuko balira, akabola!". Igarri-igarrikoak dira basurdearen markak. Etxe azpiko saila behin baino gehiagotan harrotu diete basurdeek, eta gaur ere, hala dago eskuin hegala osoa, hasi behean eta goraino. "Iluntzeaz batera hasten dira agertzen eta sekulako txikizioak egiten dituzte, baina inori ez dio ardura. Lurra harrotzen dute eta hor ez da be-



*Jokin Zelaia eta Unai Larrañaga ehiztariak.*

larrik hazten gero. Egon naiz basozainarekin, dozenaka bider deitu dut Enbara, hamar bat parte zabalik dauzkat, baina alferrik". Baserriz baserriko jiran behin baino gehiagotan entzun dugun beste arazo bat mahai gaineratu du Nereak: basurdeena. Basurdeak narrastutako sailak erakusten dituzte baserri-tarrek hantxan, eta haserre eta etsipena irakurri daitezke haien aurpegi-tan. Basurdearen gaiak elkarrengandik urrundu ditu elkarren ondoan edo elkarrekin lan egitera ohituta zeudenak ere. Basozainak nahiago du goragokoen esku laga erantzuna eta basurdeen populazioa kontrolatzeaz arduratzen diren ehiztariak hitzak neurtuta ari dira. Gai arantzatsua da, bistan da.

## **BASURDE KOPURUA GORAKA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu du basurdeen populazioa



## 2015-2016. ehiza sasoian

### 1.505 basude ehizatu zituzten Gipuzkoan, eta iaz, 1.622. Esponentzialki ari da hazten populazioa

esponentzialki ari dela hazten Euskal Herrian eta Europan oro har. 2015-2016. denboraldian 1.505 basurde ehizatu zituzten Gipuzkoan, eta iaz, 1.932. Ikusitakoak gehiago izan ziren, hala ere: 2017-2018. denboraldian, 4.324, Iñigo Mendiolak emandako datuen arabera. Datu beharrik ez dute, baina, baserritarrek. "Ugaritu direla ageri-agerikoa da", dio Xabier Iraola ENBA Euskal Nekazarrien Batasuna sindikatuko kideak. Hala ere, Mendiolak emandako datuak errepikatu ditu, "basurdeak sufritzen ez dituenak kontu egin dezan". "Gehiago ehizatu dituzte, eta ez da, preseski, ehiztariak punteria zorroztu dutelako!". Baso eta ingurune sastrakatsuak maite ditu basurdeak, eta nekazaritza lurra gero eta utziagoak daudenez, habitata handitu egin zaio eta horrek ekarri du hein handi batean ugaritzea. Eta asko daudenez, "iriskantzak" ere handiagoak dira.

Ehiza da gaur egun basurdeen populazioa kontrolatzeko erabiltzen den neurria. Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatu du Ehiza Federazioarekin eta basurdetan ibiltzen diren kuadrillak dira kontrol hori egiten dutenak. Basurde populazioa kontrolatze aldera, ehiza denboraldia ere luzatu zuen Aldundiak martxoaren bukaerara arte, eta eguenetan ehizatzea baimendu zuen (lehen, barixaku, asteburu eta jaiegunetan ehiza zitekeen). Basurdetara irteteko, gutxienez hamar laguneko taldea osatu behar izaten dute ehiztariak, eta kuadrilla bakoitzak bere ingurua izaten du ehizarako. Iazko denboraldian, 31 kuadrilla osatu ziren Gipuzkoan. Noiz irten araututa dute, esan bezala: normalean, irailera hasieratik martxo bukaera alderainokoa izaten da Euskal Herrian basurde denboraldia eta ehiztariak astean lau egunehi irten daitezke orain ehizara. Uxaldi guzti horiez gain [1.612 iaz], denboraldiz kanpoko uxaldiak ere baimendu izan dituzte, basurdeek nekazaritza lurretan kalteak eragin izan dituztenetan. Horretarako, kalteen abisuak jaso eta espedientea zabaldu ahal izateko, aplikazio bat jarri du martxan Aldundiak. Mendiolaren esanetan, aplikazioan sartu diren abisu guztiak jaso dituzte, eta tramitatzeko daude. Kalteak asko dira, baina, eta tramitazioak egiteko modurik egokienak aztertzen ari dira orain, "kalte-ordainak bideratzeko eta prebentzio neurriak ezartzeko". Prebentzio neurrien artean honako bi hauek ari dira bultzatzen Aldunditik: ehiz-

tariak basurdeek kaltetutako lurretara bidali eta artzain elektrikoak jarri, basurdeak lur horietan berriro sar ez daitezzen. Nolanahi ere, Mendiolak dio ezin esan daitekeela basurdeen populazioa kontrolaz kanpo hazi denik, "urtero Gipuzkoan basurde asko ehizatzen direlako".

#### "DENA DA GUTXI"

Ehizarako egun gehiago izan arren, dena gutxitxo dela uste dute baserritarrek, ordea. Basurdeen kontrola Ehiza Federazioaren esku egotea bera ere ez dute denek begi onez ikusten. Zenbaitek uste dute ehiztariak afizioz irteten direla basurdetara eta Ehiza Federazioari berari komeni zaiola basurde kopuru dezente bat egotea, zeri tira egin izateko. Ez daude konforme Iñaki Basurto eta Jokin Zelaia Elgoibar eta Mendaro bueltan ehizan jarduten diren bi kuadrilletako presidentek. "Ehizarako konpromiso handiko lekua ez bada -autobide inguruak edo jende-paso handiko lekuak- deitutako guztietan ere joaten gara gu. Afizioa obligazio ere bihurtzen ari zaigu eta baserritarren haserreak ere entzun behar izaten ditugu, kulpa handirik gabe, nire ustez", dio Zelaia. "Ez dute fede txarrez esango, baina entzun dugu nahi ez dugulako ez ditugula botatzen ere! Errazegi jarduten da jendea sarri. Kontua da, soluzio zaila duela honek", gehitu du Basurto. ENBA sindikatutik egindako kritikari erantzunez onartu dute, hala ere, basurdetan aritzen den gazte gutxi daudela eta beharbada egon daitekeela ehiztari premia. "Basurdetan txakurrarekin dabilenak asko ibili behar du mendian, paraje sastrakatsuetan gainera, eta sasoiko egotea komeni da, baina egia da, bai, kuadrilla gehienetan gazte gutxi daudela. Baina horren kontra zer egin dezakegu guk?", esan du Zelaia.

Urtebetean ehundik gorana basurde ari dira botatzen bi kuadrillak. Zelaia kuadrillakoei, esate baterako, 106 bota zituzten iaz, eta aurten, 79 daramatzate dagoeneko. Jateko asko dute eta erraz ugaritzen dira, baina. "Behin baino gehiagotan tokatu zaigu basurde eme baten barruan bost-sei umeki topatzea. Lehen, bat edo bi izaten zituzten, eta orain, bost ere bai. Ondo elikatzen den animaliak gehiago obulatzen du eta hori basurdeetan agerikoa da", zehaztu du Zelaia.

#### IZURRI AFRIKARRA

Basurdeak ugaritu izanak baino kezkatuago ditu, nolahi ere, basurdeetan zabaltzen ari den izurri afrikarra delakoak. Belgikan atzeman zuten gaitza estrainezko eta nahi baino azkarrago ari da zabaltzen (Frantziaraino iritsi da). Hiru bide hauen bidez zabaltzen da gaitza: animalia kutsatu batekin kontaktuan egonda, kaparraren bitartez edo txerriak janda, baldin eta janari kutsatuekin elaboratu bada. "Eta ikusita gaitza zein azkar hedatzen ari den eta Iberiar penintsulara irteteko dagoen arriskua, Pirineo mendikate inguruko erkidegoetan estrategia komun bat lantzen ari dira, prebentzio neurriak hartzeko, eta kasuren bat agertuko balitz, lehenbailehen hartu ahal izateko behar diren neurri guztiak", azaldu du Mendiolak. Izan ere, gaitzak kalte handia eragin dezake, batez ere txerri haztegietan, oso kutsakorra delako eta heriotza eragiten duelako. "Horrek, bai, ekarriko lukeela azkena".



## “Egitura minimoa izango du lanean Zientzia, Teknologia eta Ikerketa Partzuergoak Mendaron”



### Estibaliz Hernaez

TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA ETA LEHIAKORTASUN SAILBURUORDEA

Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Ikerketa Partzuergoak egoitza Mendaron izango duen albisteak ez du inor oharkabeen utzi. Miguel de los Toyos Eibarko alkateak harrotu zituen hautsak sare sozialetan, eta bolo-bolo ibili da gaia kalean. Partzuergoaren egitekoaz eta ezazgarriez jakiteko eta egoitza Mendaron kokatzeak herriari onuraren bat ekarriko dion galdetzeko, Eusko Jaurlaritzara jo dugu. Hona Estibaliz Hernaez Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordeak idatziz eman dizkigun argibideak.

- AINARA ARGOTIA -

◆ Eusko Jaurlaritzak, SPRI-k, Foru Aldundiek, zentro teknologikoek eta ikerketa kooperatiboko zentroek partzuergoa eratzeko hitzarmena sinatu berri dute. Zein beharri erantzuteko?

BRTA (Basque Research & Techno-

logy Alliance) Euskal Zientzia eta Teknologia Partzuergoa Euskadik dituen erronka teknologiko eta industrialei erantzuteko eta Euskadik arlo honetan nazioartean duen lekua hobetzeko sortuko dugu.

◆ Zer nolako tokia betetzen dugu gaur nazioartean? Zergatik eta zein garrantzitsua da herrialde marka bat sortzea eta garatzea, Ekonomiaren Garapenerako Sailarentzat?

Gaur egun, berrikuntza-maila handiko



eskualdeen taldean kokatuta gaude Euro-pako Batasunean, baina oraindik gure posizioa hobetu dezakegu. Horretarako oso garrantzitsua da eskala txikiko arazoak gaintzea, gure ahalmen eta indarrak biltzea, eta marka bakar eta indartsu batekin ordezkatzea gure sistema teknologikoa munduan zehar.

♦ **Zeintzuk izango ditu egiteko nagusiak Partzuergoak? Badago inguruan era honetako beste egiturarik?**

BRTA Partzuergoaren funtzio nagusiak honako hauek izango dira: Partzuergoari atxikiko zaizkion agente teknologikoen koordinazioa sustatzea, haien jarduerak uztartzea eta bateragarri egitea, ezagutza sortzeko eta enpresei helarazteko baldintzak sendotzea, eta eremu teknologikoan nazioarteko proiektzioa izango duen marka propio bat bultzatzea. BRTA Partzuergoaren Ikerketa Agenda bat eta Transferentzia eta Merkatu Agenda bat adostez arduratuko da, Partzuergo osatzen duten agenteen unitateekin koordinatuta. Europar zentro teknologikoen sistemak publikoak direnez, badaude korporazio ezagunak lan hau egiteko (Fraunhofer, TNO, VTT, RISE, SINTEF, etab.), baina gure inguruan ez dago horrelakorik.

♦ **Zeintzuk ezaugarri ditu Partzuergoak? Nortzuk osatzen duten bada-kigu, baina lan funtzionamendua zein izango du? Zein antolamendu edo egitura izango du? Zer aurrekontu? Noiz eratuko da edo noiz hasiko da lanean?**

Gobernu-organismoak Batzar Nagusi batez osatuta egongo dira, presidentetzarekin eta presidenteordetzarekin. Kudeaketa- eta zuzendaritza-organismoak Batzarde Teknikoak eta Zuzendaritza Nagusiak osatuko dituzte, eta bi aholku-organismo egongo dira, Batzarde Zientifiko-Teknologikoaz eta Industria Batzardeaz osatuak. Batzar Nagusia Partzuergoaren gobernu-organismo gorenaren izango da, eta agente guztiak egongo dira ordezkatuta bertan. Or-

dezkaritza Partzuergoaren finantzatzeko egindako urteko ekarpenaren proportziozkoa izango da.

Aurreikusitakoaren arabera, BRTA Partzuergoaren urteko lehen hiru hilabeteetan eratuko da, eta Mendaroko Kurutz-Gain Industrialdean izango du egoitza. Hasierako aurrekontuari dagokionez, Administrazio Orokorra 500.000 euroko ekarpena egingo du, SPRIK 100.000 euroko ekarpena, eta agente teknologikoen 400.000 euroko ekarpena.

*“3.540 profesionalak lan egiten dute Partzuergo osatuko duten entitateetan eta 283 milioi euroko fakturazioa dute”*

♦ **Partzuergoan atxikitutako entitateen artean bada Elgoibarko bat: Ideko. Egiteko bereziren bat izango du Ideko? Nolako izango da bere parte-hartzea?**

Ideko, beste zentroek bezala, Zuzendaritza batzordean parte hartuko du. Horretan, zentro teknologiko guztiek pisu bera edukiko dute, beraz Ideko ez du parte-hartze desberdinik izango beste zentroen aldean. Baina zentroen artean, euren espezialitatearen arabera, arlo desberdinetako koordinazio lanak banatu beharko dituzte.

♦ **Partzuergoaren sistema optimizatzeko balioko duela esan duzue. Zeintzuk hutsune edo hobetu beharreko daude identifikatuta?**

Euskadin mota askotako zentroak ditugu, ahalmen zientifiko-teknologiko oso altuekin, baina gehienak tamaina

txikikoak. Gure sisteman, agente guztien arteko konektibitatea, hau da, elkarlana, kolaborazioa, kooperazioa, koordinazioa... hobetzeko da eta hori indartu nahi du Partzuergoak.

♦ **Zenbakitara eramanda, zer da Partzuergo hori? Atxikitutako entitate guztiak kontuan hartuta, zenbat profesional ari dira gaur zientzia eta ikerketaren atzerikape horretan? Zenbaterako fakturazioaz ari gara? Espezializazioetan zeintzuk dira nagusienak errenkadetan?**

Hamabi zentro teknologikoz eta lau CIC-z osatuko da Partzuergoak. Gaur egun, 3.540 enplegu ematen dituzte denen artean, eta 283 milioi euroko fakturazioa dute. Emaitzak ere beste herrialde europar batzuen antzekoak (esaterako Norvegia edo Suediakoak): ia 100 patente edo 1.000 argitalpen zientifiko dituzte, gehien bat gure arlo nagusietan: fabrikazio aurreratu, energia eta biozientziak.

♦ **Zein dimentsiotako egoitza izango da Mendarokoa? Zeintzuk ezaugarritakoa? Zenbat lagunentzako lana sortuko du, eta zer da handik zuzenduko dena?**

Kontuan izan behar dugu Partzuergoaren egitura minimoa izango duela lanean, beraz egoitzaz hitz egiten denean 250-300 metro koadroko bulego batez hitz egiten ari gara. Sprilurrek eskainitako espazioa egokituko da, batez ere batzar-gelekin koordinazio lana egiteko agente guztien artean.

♦ **Eztabaida piztu du Eibarko alkateak gure eskualdean. Zergaitik kokatu dute egoitza Mendaron? Bulego hori Mendaron zabaltzeak zeintzuk onura ekarriko dizkio herriari?**

Euskadiko zentro zientifiko-teknologiko guztietatik bildu behar diren pertsonen mugikortasuna erraztea izan zen egoitza Mendaron kokatzeko irizpide nagusia. Toki desberdinak aztertu ziren inguruan, Sprilurren industrialdeetan, baina egokiena, arrazoi logistikoengatik, Mendarokoa zela ebazti genuen.



## ► MIREN NARBAIZA

MICE

Napoka Iria desegin ostean hainbat musika proiektutan aritu izan da Miren Narbaiza (Eibar, 1986), eta 2017ko udazkenean bakarkako estreinako lana kaleratu zuen. MICE izenarekin aurkeztu du bere burua bakarkako lan honetan. Abestiak berak idatzi eta sortu ditu, eta ekoizpen lanetan Joseba Baleztena izan du lagun. Sinüosek antolatuta, gaur gauean aurkeztuko du bere bakarkako lana Kultur Etxeko sotoan, baina ez da bakarrik etorriko. Bandaren babesean jardungo du, Ilargi Agirre, Ibai Gogortza eta Joseba Baleztenarekin, hain zuzen ere. 23:00etan hasiko da emanaldia.


- AINHOA ANDONEGI -

### ◆ MICE. Nondik dator izena eta nola ahoskatu behar dugu?

Maiz ahoskatzen da. Izenak, berez, ez dauka transondo handirik. Belarrira polita egiten zaidan hitz bat da. Euskaraz esanahi bat dauka eta beste hizkuntza batzuetan beste batzuk. Unea iritsi zenean izen bat aukeratu behar nuen eta honen geratu nintzen.

### ◆ Napoka Iriari agur esan ondoren beste hainbat musika talderekin aritu zinen kolaboratzen. Noiz eta nola iritsi zitzaizun bakarka aritzeko unea?

Pausoz pauso etorri zen aldaketa. Napoka Irian etenaldi bat egin genuen lehenengo, eta tarte horretan bai Ander eta bai ni beste musika proiektu batzuetan parte hartzen hasi ginen. Bestiak beste, Joseba B. Lenoir Gang, Perlak eta Drumkopters taldeetan jardun nuen, eta Napoka Iriaren amaiera iritsi zenean sentitu nuen nire aldetik, bakarka, zerbait egin behar nuela. Bakarkako lan bat sortzeko gogoia neukan, eta kantak prestatzen hasi nintzen. Horrela sortu nuen MICE. Udazkenean urtebete pasatu zen diskoa kaleratu nuenetik.



# “Elgoibarko lagunei kontzertu on bat eskaintzeko asmoz nator”

### ◆ Napoka Iriari agur esatea zaila izan zen?

Ander eta bion gogoeta eta sentimendu batzuen ondorioa izan zen Napokaren amaiera. Ez zen izan egun batetik bestera hartutako erabakia, baina nahiko argi ikusi genuen Napoka amaitzeko unea iritsi zela. Ez zen erraza izan, baina lasai gaude biok, sentitzen genuenari erantzuna eman geniolako. Eta amaiera horrek beste gauza batzuek egiteko aukera eman digu; azken batean, ate batzuk itxi egin behar dira beste batzuk zabaltzeko.

### ◆ MICE izan da zabaldu den ate berri horietako bat. Zuk zeuk sortutako zortzi

### abestirekin osatu duzu diskoa. Zeri abestu diozu?

Nire barrura begiratzen dut asko kantak idazteko orduan, eta oraingoan ere halaxe izan da. Sentimenduei kantatu diet asko, egoera iragankorrei, norberak bizitzen dituen egoerei... Hazteko eman behar diren pausoetaz ere hitz egin dut, beldurretaz... Baina nire helburua da diskoa entzuten duena ahalduntzea. Onartzea aurrera egiteko oztopoak ditugula denok, baina egin ahal dugula. Norberak bereari eutsi behar dio, egiten duen horretan sinetsiz eta prozesu horretan haziz. Nire barrutik sortutako kantak dira, baina beti saiatzen naiz, baita ere, ikus-





## “Momentuz pozik nabil honetan, eta espero dut urte askoan irautea”

leztana etortzen da nirekin. Taldean joaten gara Ilargi Agirre Perlak taldeko bateria jolea, Ibai Gogortza Borrokan taldeko gitarra jolea, Joseba Baleztena eta ni neu. Gaurko kontzertua ere bandarekin eskainiko dut.

### ◆ Gaur sotoan arituko zara. Zer suposatzen du zuretzat Elgoibarren joteak?

Elgoibar niretzako oso herri berezia da. Ordu eta egun asko pasatu ditut Elgoibarren Anderrekin, eta bertako beste hainbat lagunekin. Sotoa bera oso leku goxoa eta berezia da niretzat, eta oroitzen berezi asko ekartzen dizkit. Ilusio handiz nago kontzerturako. Elgoibarko lagunei kontzertu on bat eskaintzeko gogoz nago.

### ◆ Emakumea, kulturgilea, sortzailea... Beste emakume askoren eredu zara. Horrek presiorik sortzen al du zugan?

Presioa nik neuk egiten diot neure buruari, baina ez naiz jartzen horrelako gauzetan pentsatzen, horrelako pentsamenduek ez didatelako onik egiten. Baina nik beste batzuk eredu izan ditudan moduan, ni beste batzuen eredu izatea ohore bat da. Norbaitek esaten didanean nik inspiratu dudalako hartu duela gitarra edo sortu duela kanta bat, asko pozten naiz. Nik neuk ere asko izan ditut eredu, bai emakumezkoak eta baita gizonezkoak ere.

### ◆ Aurrera begira, zein proiektu dituzu eskuartean?

Momentuz kontzertuak ematen jarraituko dut, diskoa aurkezteko. Eta pixkanka hurrengo lanaren hezurdura prestatzen hasiko naiz, baina presarik gabe. Ez daukat argi hau guztia amets bat izan ote den niretzat. Argi daukadana da honekin gozatzen dudala gehien. Momentuz pozik nabil honetan, eta espero dut urte askoan irautea.

pegi globalago bat transmititzen, entzuleak abesti horiekin identifikatu eta bere sentitu ditzan.

### ◆ Pop-rock ukitua dauka diskoak, baina abesti bakoitzak soinu desberdina dauka. Zein estilotako diskoa dela esango zenuke?

Ez nuke jakingo esaten. Rock-a dauka oinarrian, baina musika estilo askotako ukituak ditu. Abestiak grabatu ostean asko ukitu genituen estudioan, asko jolastu genuen abestiekin. Abesti lasaiak daude, pop-rock kanta arruntak... Denetik dago. Abestiek badute euren artean hari moduko bat, baina oso desberdinak dira denak. Disko honek ez dauka estilo bakar bat.

### ◆ Bakarkako lana izan da hau, baina ez zara bakarrik egon.

Bai, Joseba Baleztena egon da hasieratik ekoizpenean. Lan asko egin genuen abestiekin estudioa sartu aurretik ere, eta berak eman dio forma disko osoari. Bera izan da diskoaren ekoizlea %100ean. Horrez gain, jöten ere aritu da. Berak grabatu ditu gitarrak, teklatura, baxua, perku-

sioak... Oso pozik geratu naiz emaitzarekin.

### ◆ Adituek ere kritika oso onak egin dizkiote zure bakarkako lan honi. Nola hartu duzu hori guztia?

Pozik nago. Eskertzen da jendeak norbere lana errekonozitzea; segurtasun moduko bat ematen dizu horrek.

### ◆ Oholtzan taldearen babesia izateak bakarka jardutera pasatu zara. Nola izan da aldaketa hori?

Batzuetan gogorra izaten da. Norberaren egoeraren arabera izaten da hori. Indartsu zaudenean gogor irteten zara, baina beste batzuetan oso-oso txikia sentitzen zara jendearen aurrean. Bakarrik zaude, eta bakarrik defenditu behar duzu lan guztia. Praktika eta lan handia eskatzen du horrek. Dena dela, ez naiz beti bakarrik irteten. Diskoa atera aurretik bakarrik jotzen nituen kantak, baina diskoa kaleratu ondoren taldea osatu genuen zuzenekoetarako. Hortaz, kontzertu gehienak taldean eskaini ditugu, eta modu akustikoan joaten naizenean, Joseba Ba-



## Bihar itxiko dute zigilu erakusketa



**A**ltzolatarran Dorretxea Filatelia Elkarteko kideek San Anton egunean bertan zabaldu zuten zigilu erakusketa, eta bihar itxiko dute. Aurtengo edizioa Mufomi fosil eta mineralen museoarekin 25. urteurrenari eskaini diote. Urtero bezala, Euskal Herriko eta Espainiako hainbat lekutako bildumagileen lanak jarri dituzte ikusgai, eta biharko itxiera ekitaldia baliatuko dute horiei guztiei eskerrak emateko. Filatelia elkarteko kideekin batera, Udaleko arduradunek ere parte hartuko dute biharko ekitaldian, eta bildumagileei eta baita Mufomi museoko kideei ere oroi-garriak emango dizkiete. 13:00etan izango da ekitaldia. Aurretik, 11:00etan, Filatelia Elkartearen Euskal Federazioak batzarra egingo du Kultur Etxean.

## San Anton eta Anttoni Eguna ospatu dituzte elgoibartarrek

Jai-giro handirik gabe joan zen San Anton Eguna. Tarteka euri zaparradak ere bota zituen urtarilaren 17an, eta jende gutxi ibili zen kalean. Umeentzako puzgarriak ikastolako frontoian jarri zituzten eguraldiagatik, eta erraldioen kalejira ere oihkoa baino motzagoa izan zen. Herriko Antzokian iragarrita zegoen kontzertua, baina, bere horretan mantendu zen. Zapatuan, bestalde, Anttoni Eguna ospatu zuten elgoibartarrek. Hasieran iragarritakoa baino egitarau murriztagoa izan zuen egunak, baina antolatzaileek esan dutenez, jendeak "ondo" erantzun zuen. Hasieran jende gutxi egongo zela ematen zuen arren, kontzertuan Maala bete egin zela adierazi dute.



## 'El Caserío' zartzuela gaur, Herriko Antzokian

Sasibil elkarte lirikoak *El Caserío* zartzuela taularatuko du gaur iluntzean, Herriko Antzokian. Arrigorri izeneko fikziozko herrian kokatzen da istorioa. Ameriketatik dirua eginda itzultzen den gizonezko baten bizimodua kontatzen du. Bere baserriko munduari segida eman asmoz, bere bi ilobak ezkondu nahiko ditu. 20:30ean hasiko da ikuskizuna.

## Mendaroko santa eskean parte hartzeko deia

Otsailaren 2an irtengo dira santa eskean Mendaron, eta antolatzaileek herritarrei egin diete koruetan parte hartzeko deia. 8:30ean elkartuko dira udaletxe azpian, eta hiru taldetan banatuta koplak dituzte Mendaroko kale eta baserriak. Amaia Agirre eta Asier Lazaro baster *Agarre* izango dira Sathzumendiko koplariak, Aitzol Urain eta Beñat Ugartetxea Garagartzakoak eta Beñat Lizaso eta Iñigo Zubiaurre *Beitxi* Mendarozabalekoak. Batzen duten dirua Ameikutz Musika Eskolarentzat eta Sendi Anaitasunarentzat izango da.

## Santa eskeko Etxegiña taldekoen entseguak

Etxegiña taldeko kideak otsailaren 2an irtengo dira santa eskean Elgoibarren kalez kale. Horretarako bi entsegu egingo dituzte datorren astean: martitzenean eta egunean bilduko dira 20:00etan, Kultur Etxeko sotoan. Parte hartu nahi dutenek bertara agertu beharko dute. Aurten, bestalde, berrikuntzak izango ditu Etxegiñakoen santa eskeak, izan ere, ikastolako ikasleek prestatutako 18 koplak abestuko dituzte, eta ikastolako ikasleek euren ere hartuko dute parte kalejiran. Arduradunek esan dute aurrerantzean Herri Eskolarekin ere hasi nahi dutela elkarlanean.





## Labaka eta Telletxea gailendu dira San Anton Pilota Txapelketan

Kastolako frontoia ia beteta zela jokatu zituzten, urtarrilaren 18an, San Anton Pilota Txapelketako finalak. Promesa mailako finala jokatu zuten lehenik, eta Unai Alberdik eta Antton Apezetxeak 22 eta 18 irabazi zieten De La Fuentek eta Olidenek osatutako bikoteari. Jarraian lortzen duten bigarren garaipena da Alberdientzat eta Apezetxearentzat, iaz ere eurek jantzi baitzuten txapela. Iaz moduan, gainera, Umore Ona taldeko Antton Apezetxea goizuetarra aukeratu zuten finaleko pilotaririk onena. Nagusien mailan Albizturgo bi pilotari gailendu ziren: Eneko Labaka eta Xabi Telletxea. Finalean, 22 eta 13 irabazi zieten Salaberriari eta Bikuñari. Eneko Labaka aurrelaria aukeratu zuten finaleko pilotaririk onena. Sari banaketa ekitaldian Inaxio Errandonea pilotari ohiaren laguntza izan zuten Elgoibarko Udaleko eta Lagunak Pilota Eskolako ordezkariak.

## Moru gaineko ondarea ezagutzeko irteera

Mendizaletasuna eta ondarea uztartu zituen Morkaiko mendi taldeak ikas-tetxeekin elkarlanean antolatutako azken mendi irteerak. Moru gainera igo ziren aurreko domekan. Lagun gutxi hartu zuten parte, eguraldiagatik eta Goazen antzezlanaren emanaldia parean tokatu zitzaielako, Morkakotik jakinarazi dutenez. "Euria emanda zegoen arren, ateri eutsi zion ia ibilbide guztian eta Moru gainean brontzezko herrixkari buruzko azalpenak entzun genituen", azaldu dute. Hurrengo mendi irteera Arno mendira izango da otsailaren 17an.



## Garaipena eta errekorra lortu zituen Mayi Mujikak Kalamua-Barinaga jaitsieran

Kalamua-Barinaga Jaitsiera jokatu zuten aurreko zapatuan, hirugarrenegoz, eta aurreko bi ekitaldietan gertatu zen moduan, Joseba Plaza markina-xemeindarra eta Mayi Mujika elgoibartarra gailendu ziren. Mujikak, gainera, iaz ezarritako errekorra ondu zuen. Hamahiru minutu eta 37 segundoan osatu zuen jaitsiera, iaz baino 17 segundo gutxiagoan. Oñatiko Ainara Uribarri Martinezek (00.14.43) egin zuen bigarren eta Bidane Baskaran Etxeberria markina-xemeindarrak (00.15.13) hirugarren. Gizonezkoetan Joseba Plaza Rabanete izan zen azkarrena (00.11:52). Juanan Martin Leiva elgoibartarra bederatzigarren postuan sailkatu zen (00.13.24).

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai.  
☎ 631 822 545

Baserri lanetan edo eraikuntzan jarduteko prest nago. Esperientzia handia daukat. ☎ 644 849 206

Garbiketa lanak egiteko edo etxeko langile moduan jarduteko prest nago. Titulazioa daukat. ☎ 626 407 923

Adinekoak zaindu edo beste edozein lan egiteko prest nago.  
☎ 651 195 167

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 655 094 780

Adinekoak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest nago. ☎ 688 718 853

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. ☎ 648 039 187

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Erreferentzia onak ditut. ☎ 612 232 312

Etxeko langile moduan egingo nuke lan. Berehala hasteko prest nago. Erreferentzia onak ditut. ☎ 631 975 260

Ume zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 653 667 975

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Malgutasun osoa. ☎ 612 463 096

Nagusiak zaintzen egingo nuke lan, orduka edo asteburuetan. ☎ 631 558 243

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. ☎ 632 412 561

**Eskaintza**  
Malape tabernarako zerbitzaria behar da. ☎ 673 481 976

**PARTIKULARRAK.....**  
LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditugu. *biribiltxoko@gmail.com*  
☎ 630 055 077 / 666 667 183

**BESTELAKOAK.....**  
Konporta Elkarrekin jendea behar du dituen plaza libreak betetzeko. Sartzeko erraztasunak emango dituzte.  
☎ 943 740 518

# ZEHAR HEZIKETA ETA PROGRAMAK ELKARTERAKO LAN POLTSA

Zehar Heziketa eta Programak Elkartearen lan poltsa osatzen gabiltza, Elgoibarko Gazteleku eta Ludoteka zerbitzuetarako. Profesionalaren profila:

- Gizarte hezkuntza, pedagogia, magisteritza, psikologia, gizarte lana... edo antzeko unibertsitateko gradua,
- EGA ziurtagiria.

CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:  
urtarrilaren 28 baino lehen  
**zeharheziketa\_2@hotmail.com**

**Zehar**  
Heziketa eta Programak



**administradores**

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzko Alkartasunaren Administrazioaren Erakunde Nazionala



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Gure etxepeko lehenengo pisuaren kanpo aldeko burdinertza babesten duen harriaren zati bat erori da. Harri pusketak behean aparkatuta zeuden auto batzuen gainera erori dira, kalteak eraginez. Auto-jabeek komunitateari eskatu diete konponketaren dirua, baina guk esan diegu lehenengo pisuko bizilagunari eskatu behar diotela. Jakin nahi nuke kalte-ordain hori nork ordaindu behar duen.**

Erori den harri pusketari hori fatxadaren parte denez, izaera komuna dauka eta mantenu lanak komunitateari dagozkio. Mantenu lanak ez egin izana, beraz, komunitatearen ardura da. Hortaz, komunitateak egin behar dio aurre kalte-ordain horri, eta ez lehenengo pisuko etxe-jabeak.

**AHOLKUA:** Egoera honetan garrantzitsuena ez da kalte materiala, baizik eta horrelako egoeretan sortzen den arriskua. Eroritako harriek behetik pasatzen den edozein oinezko harrapatu dezakete, eta horrek ondorio larriak eragingo lizkioke komunitateari, izan ere, erruaren dimentsioa eragindako kalteen arabera neurtzen da. Gertatu dena ikusita, berriz gertatu daitekeen ez dakigunez, komeni da fatxadaren egoera aztertzea, horrelako egoerak ez daitezzen errepikatatu.





Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Oihan**, gaur 2 urte egin dituzulako. Etxekoen partez, muxu bat.



Zorionak, **Garazi**, zapatuan 8 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat etxeko guztion partez.



Zorionak etxeko futbolariari! 10 urte! Eta, hamar mila muxu zuretzat. Etxeko guztion partez.



Zorionak etxeko printzesari urtarri-laren 23an 6 urte bete zituelako. Muxu pila bat etxeko guztion partez.



Handitu jaku etxeko txikixa! Zorionak, **Egoi**, domekan 8 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eta patxo bat etxekuen partez.



Zorionak, **Ian**, asteartean 8 urte beteko dituzulako. Primeran ospatu zure eguna! Muxu erraldoi bat anaien eta lehen-gusuen partez.

**Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**

**943 744 112**

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

**667 261 248**  
(Leire)

**IKASBAI**  
AKADEMIA  
KLASE PARTIDULARRAN

**IKASGO**  
ACADEMY  
ENGLISH CLASSES  
ELGOIBARREN

**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar

**KALITATEZKO  
ATSEDENEAN ADITUAK**

**%50era arteko beherapenak**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

40.  
urteurrena  
**UZURI**  
optika audio

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

➤ **Urtarrileko eskaintzaren  
AZKEN ASTEA!**

**VARILUX  
BETAURREKO  
PROGRESIBOAK 2X1**



**2019ko kanpaina berezia!**  
Uzuri Optikak 40 urte bete ditu.  
Hilean egindako erosketarekin  
sari baten zozketan sartuko zara.  
Parte hartu!

➤ Urtarrileko zozketa:  
**Michael Kors poltsak  
(3 poltsa daude)**



## 25 BARIXAKUA

**20:30** Zartzuela: *El Caserío, Sasibil*. Herriko Antzokian.

**23:00** Kontzertua: *MICE*. Sinüosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

## 26 ZAPATUA

**11:00** Filatelia elkarteetako euskal federazioen batzarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**13:00** Fosil eta mineralen Mufomi museoaren 25. urteurrenari eskainitako zigilu erakusketaren itxiera. Parte hartzaileei eta laguntzaileei eskerrak emateko ekitaldia egingo dute. Kultur Etxean.

**16:00** Euskal Herriko mus txapelketa, Lanbroa tabernan.

## 27 DOMEKA

**16:30** Zine emanaldia: *Campeones*. Mendaroko San Agustin aretoan

## 28 ASTELEHENA

**8:00-13:00 / 14:30-17:30** Pirinio-tako burdinaren bideari buruzko erakusketa. Otsailaren 10era arte egongo da ikusgai, Makina Erremintaren Museoa.

**19:00** Epeletan Literatura tailerra: Garazi Arrularen *Gu orduko havek* liburua landuko dute. Udal Liburutegian.


## 29 MARTITZENA

**18:00** Literatura tailerra: Arturo Perez Reverteren *Falco* liburua landuko dute Consuelo Carrererekin. Haizeak antolatuta, Udal Liburutegian.

## 31 EGUENA

**18:00** Irakurketa tailerra: *Irakurri aurretik, irakurri*. Bularretik Mintzora egitasmoaren sortzaile den Itziar Zubizarretak eskainiko du.

## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'Mi amor perdido'

26 zapatua: 19:00 / 22:15 VOS  
27 domeka: 19:00  
28 astelehena: 21:30

### 'Stubby, un héroe muy especial'

27 domeka: 16:30

### 'Entre dos aguas' (Ongarri zinekluba)

31 eguena: 21:30

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
25 BARIXAKUA	26 ZAPATUA	27 DOMEKA	28 ASTELEHENA	29 MARTITZENA	30 EGUAZTENA	31 EGUENA	1 BARIXAKUA
Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Etxeberria</b>	Egunez <b>Etxeberria</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>*Ibañez</b>
Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>
<p>* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142</p>		<p>* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638</p>		<p>* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384</p>		<p><b>Urte guztian, gaez: 22:00-09:00</b> La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar) 943 254 410</p>	



## Braulio Sahagun Sanchez

2019ko urtarrilaren 9an hil zen, 89 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





# elgoibarko herri eskola

AURRE-MATRIKULAZIO EPEA: URTARRILAREN 28 TIK - OTSAILAREN 8 RA

ETORRI: ESKOLA EZAGUTZERA URTARRILAREN 30EAN, 15:00ETAN - DEITU 943 740 879 ZENBAKIRA EDO IDATZI ZUZENDARITZA@ELGOIBARHE.NET HELBIDERA

## DENON AUKERA, DENON ESKURA






# HURRENGO **BOE** SUSTAPENA ELGOIBARREN, OLASOATEN



EMAN IZENA **ETXEBIDEN**  
ETA EZ GALDU AUKERA HAU



**943 31 68 68**

[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

 **sukia**

Zure etxean zaude **Estás en tu casa**